

2022KO HERRI ALDIZKARIA



AUZAPEZAREN HITZA

Herritar maiteak,

2022. urteak bizitza normalera itzultzeko bidea eman digu. Kultura, besta eta kirol ekitaldi guzien antolaketan aritu diren elkarte guziak eskertu nahi ditut. Arrakasta handia bildu dute herritarren aldean.

2022an sortu den ekitaldi berri bat aipa dezakegu, Arberoako ostiralak kari antolatua eta Artetxea & Arberoako Joaldunak taldeek antolatutako arroltze moleta txapelketa uztail hondarreko gualdi goxo batez, pilota plazan, baita John Wentz karrikartistaren egonaldia ere, pilota plazan egin duen obrarekin. Fresko hori gure herria edertzeko proiektuaren 1. urratsa da, sartzea nahiko hitsa zelarik pareta handi horrekin. Hemendik aitzina, paregabea geldituko da!

Bizi izan dugun nehoiz ikusitako idortea ere aipatu nahi nuen, laborantza mundua gogor hunkitu duten zenbait hilabetetako ur murrizketekin. Agian garai horrek ura etorkizunean zaindu beharko dugun aberastasunik handienetarikoa dela ohartzera eraman gaitu.

2022. urteak Ipar Euskal Herriaren mailan pairatzen dugun bizitegi larrialdia areagotu du. Lurren urritasuna, espekulazioa, gure herrixken erakargarritasuna eta bizitegi beharrak, gure lehen arranguren artean daude. Badu 2 urte Herriko Etxeak negoziaketak eramaten dituela ELTEPeekin elkarlanean, lurrak erosteko aukera guziak baliatzeko gure herritarrei bizitegi helgarrietarako bideak eskaintzeko xedez.

Bestalde, Hirixka kolektiboaren salmenta Habitat Sud Atlantic alokatzaile sozialari, gure geroko beharrak pentsatzeko dugun xedearen adierazle izaten da. Salmenta horri esker, diru-ahalmen batzuk ditugu zenbait proiektu eramateko. Haatik, geroko obrak bururaino eramaten lagunduko gaituzten edozein diru laguntzaren bila gabiltza.

2022an eramandako "Burgu barnea" erreferentziazko planaren ikerketaren ildoan eta antolaketa mailako beharrei buruzko ikuspuntu trukadak ahalbidetu dituzten solasaldi desberdinen harira, emaitza orokorra azaltzeko biltzar publiko batera gomiatuak izanen zarete laster. Obralaritza bulego bat hartu berri dugunez, obren fase operatibora pasa gaitezke, zenbait urratsetan mailakatua.

Energia larrialdi testuinguru honetan, 2023an, Euskal Elkargoko zerbitzuekin elkarlanean, Harpe Alde etxearen ikerketa termikoa, energetikoa eta fotovoltaikoa eramanez dugu. Honen emaitzak baliatuko ditugu ondoko zaharberritze lanetan.

Bukatzeko, tokiko 1. luberritze batzordearen galtzarrean laborantza munduarekin eramandako lana eta herriko larreak bertute gehiagorekin kudeatzeko jardura berriak garatzeko solasaldiak azpimarratu nahi nituzke.

Esku hartzeko prest egon diren axuant eta zinegotzi guziak, aldizkari honetan parte hartu dutenak eta gure herriko elkarteen ordezkariak eskertu nahi nituzke.

Zuen hurbilekoak eta zuen burua zaindu.

Frédéric CAMOU
Herriko Kontseiluko zinegotziak

2022. URTEKO HERRIKO KONTU ADMINISTRATIBOA

2021eko soberakin orokorra: + 293 639.86 €

FUNTZIONAMENDUA

Gastuak	1 211 963.76 €
- Karga orokorrak	107 587.35
- Langile kargak	256 398.18
- Gainerateko ohiko kudeaketa kargak	112 147.45
- Finantza kargak	12 262.86
- Ohiz kanpoko kargak	3 148.00
- Immobilizazio kontabilitate-balioak	718 622.00
- Amortizazioak	1 797.92
Sartzeak	1 301 183.11 €
- Zerbitzuen mozkinak	168 175.39
- Zergen mozkinak (Tokiko zergak barne*)	201 966.19
- Zuzkidurak eta diru laguntzak	89 462.13
- Gainerateko ohiko kudeaketaren mozkinak	93 493.43
- Finantza mozkinak	6.16
- Ohiz kanpoko mozkinak	726 953.00
- Kargen arintzea	21 126.81

INBESTIMENDUAK

Gastuak	160 222.17 €
- Bide obrak	26 434.59
- Materiala erostea	4 817.24
- Herriko eraikinak	18 247.75
- Burgu barnearen birkalifikazioa	24 976.28
- Zaharberritze energetikoa	15 169.58
- Jarduera anitzeko lokala	1 872.00
- Maileguak eta antzeko zorrak	40 681.27
- Ekipamendu laguntzak	20 698.23
- Gainerateko finantza immobilizazioak	7 325.23
Sartzeak	888 922.10 €
- BEZaren ordainketa	9 727.00
- Antolaketa zerga	3 141.37
- Maileguak eta antzeko zorrak	7 683.23
- Immobilizazio materialak	114 930.08
- Aribidean diren immobilizazioak	16 685.54
- Gainerateko eraikitzeak	718 622.00
- Amortizazioak	1 797.92
- Diru laguntzak: bide obrak - materiala erostea - herriko eraikinak - birkalifikazioa...	16 334.96

2022ko emaitza orokorra: + 1 111 559.14 €

2022ko kontu administratiboari buruzko oharra

2022ko uztailan, herriko kontseiluak Hirixka kolektiboko 6 bizitegiren jabegoa eta kudeaketa Habitat Sud Atlantic (HSA) alokatzaile sozialaren esku uztea erabaki du. Salmenta honen mozkinak 718 622 €koa da BEZa gabe, hots, hastapenean inbestitutako kopuruari dagokio, eta inbestimenduaren sailean sartu dugu nahitara. Salmenta honen mozkin osoa aribidean diren edo/eta geroko inbestimendu programak zuzkitzeko erabiliko dira, etorkizuneko proiektuak bururaino eramateko eta herritar guzien beharrei erantzuteko, besteak beste lur, zerbitzu eta trantsizio energetikoaren arloetan. Inbestimendu ekintzak horrela egokituak izan dira:

- (sorkuntza) Lur Estrategia: 200 000€
- (sorkuntza) Herriko eraikin eta bizitegien zaharberritze energetikoa: 110 000 €
- (sorkuntza) Jarduera anitzeko lokala: 120 000 €
- Burgu barnearen birkalifikazioa: 335 000€

2022ko ZERGA TASA (Tokiko zergak)				
Zergak	2021eko tasa	2022ko tasa	2022ko oinarria	2022ko mozkina
Bizitegi zerga	%10,66	%10,66	70 265	7 490
Jabego Eraikien gaineko Lur-Zerga	%21,62	%21,62	307 257	66 585
Eraiki Gabeko Jabegoen gaineko Lur-Zerga	%39,39	%39,39	30 281	11 928
Orotara				86 003

2023ko TOKIKO ZERGEN TASAK BOZKATZEA

Urtero, tokiko zergen tasak deliberamendu baten gaiak izaten dira. Jabego Eraikien gaineko Lur-Zergaren (JELZ) eta Eraiki Gabeko Jabegoen gaineko Lur-Zergaren (EGJLZ) tasak baizik ez dira aipagai azken urte hauetan eta aldi oro horiek ez emendatzea erabakia izan da. Bizitegi zergari dagokionez, honen tasa izoztua izan da mailaka kendua izanen delakoan.

2023an, Bigarren Bizitegiaren gaineko Zergaren (BBZ) tasa berriro izan daiteke deliberamendu baten gaia, jakinez bigarren bizitegiei, bizitegiak ez diren lokal hornituei eta azken bi urteetan hutsik egon diren bizitegiei baizik ez dagokiela (gure herrian halakorik ez da izan aurtan).

Aldi berean, aurrekontu testuingurua tirabiratsua eta duda-mudazkoa nabari da: %7 inguruko inflazioa, bana beste. Horrek erran nahi du kargak sartzeak baino zaluago emendatzen direla. Egoera kezkarri honek hunkitzen gaitu gu ere.

Herri batek ahalbide guti ditu, zergez gain, joera alderantzizatzeko. Kargak franko menperatuak dira, sartzeak ttipituz doazelarik (Estatuaren zuzkidurak ttipituz doaz eta Euskal Elkargoko ordainsariak geldirik...).

Azkenean, gure tokiko zergen tasa ez baita aldatu azken 5 urteetan eta gure elkargoari etorkizuneko erronka ugariei buru egiteko behar dituen baliabideak eman behar zaiolako, herriko kontseiluak BBZ eta JELZ tasak emendatzea eta EGJLZ tasa ez aldatzea erabaki du 2023 urterako.

		2022	2023
JELZ	Tasa	%21,62	%23,12
EGJLZ	Tasa	%39,39	%39,39
BBZ	Tasa	%10,66	%11,29

EGOERA ZIBILA

SORTZEAK

Hugo Pereira, 2022ko agorrilaren 13a sortua

Mila Artayet, 2022ko apirilaren 28a sortua

HERIOTZAK

- Argeles Edmond Charles Léon, 2022ko agorrilaren 18a zendua, Pausa Lekuan
- Ascery Jean Jacques, 2022ko agorrilaren 11a zendua, Oihanbidea
- Bellecave Elisabeth, 2022ko urtarrilaren 28a zendua, Pausa Lekuan
- Bidart Marie Thérèse, 2022ko urriaren 22a zendua, Urrutia
- Caisova Alena, 2022ko martxoaren 9a zendua, Pausa Lekuan
- Darrieumerlou Sidonie, 2022ko irailaren 7a zendua, Pausa Lekuan
- Darritchon Pascal Gérard, 2022ko urriaren 4a zendua, Pausa Lekuan
- Etcheberry Marianne, 2022ko apirilaren 4a zendua, Pausa Lekuan
- Etchepare Bertrand, 2022ko uztailaren 2a zendua, Pausa Lekuan
- Etcheverry Joseph Daniel, 2022ko azaroaren 10a zendua, Pausa Lekuan
- Ezcurdia Pascaline, 2022ko urtarrilaren 31a zendua, Pausa Lekuan
- Font Etienne Gaetane, 2022ko urtarrilaren 25a zendua, Pausa Lekuan
- Gittenay Marie Jeanne Julienne, 2022ko agorrilaren 14a zendua, Pausa Lekuan
- Hitta Marie-Jeanne, 2022ko martxoaren 24a zendua, Pausa Lekuan
- Labat St Martin, 2022ko urtarrilaren 6a zendua, Pausa Lekuan
- Lafon Daniele Odette Marie Jeanne, 2022ko irailaren 19a zendua, Pausa Lekuan
- Lubrano Lavadera Marie Olga, 2022ko urtarrilaren 3a zendua, Pausa Lekuan
- Mendiburu Marie, 2022ko martxoaren 20a zendua, Pausa Lekuan
- Pantigny Maurice Jacques, 2021ko abenduaren 20a zendua, Pausa Lekuan
- Parachu Josette, 2022ko azaroaren 15a zendua, Pausa Lekuan
- Ramirez Paul, 2022ko abenduaren 17a zendua, Pausa Lekuan
- Sanchez Fermin Jean Francois, 2022ko abenduaren 14a zendua, Pausa Lekuan
- Uhart Pierre, 2022ko irailaren 25a zendua, Pausa Lekuan

Gure doluminik bizienak desagertze hauetaz hunkituak diren familia guztiei.

HIRIGINTZA AGIRIA

ERAIKITZEKO BAIMENA - ANTOLATZEKO BAIMENA

Eraikitzeiko baimena

- CASSOU Charles eta CLAIRAC Tania > Eraikitzeiko baimenaren leku aldaketa
- JABELIN & WILLERVAL: Bakarkako etxea eraikitzea
- GAURIAT François / POUZADOUX Solenn: Eraikitzeiko baimenaren aldaketa



Aitzineko eskaerak

- CR2P: Energia fotovoltaiko sorgailua ezartzea
- BASSINET Sylvie: Hegoaldeko aitzinaldeko leiho-atea aldatzea
- OFFICE 64 DE L'HABITAT erakundea: PAUSA LEKUA: Baranda aldatzea / baratze mailako ate automatikoa / terraza antolaketa
- RIVIERE Maritxu: Portalea ezartzea + hesiak konpontzea
- THERISSE DOYLE Fiona: Zur lanak aldatzea + kanpoko isolamendua + leiho bat sortzea
- FAVIER Anouchka: Aitzinaldea moldatzea + 2 aparkaleku sortzea eta existitzen den sarbidea legar xehez estaltzea
- HARAMBOURE André: Janaria gordetzeko lokal bat eraikitzea
- LACROIX Jean-Baptiste: Leiho bat sortzea
- AROTCARENA Philippe: Panel fotovoltaikoak
- ITHURBURU Stéphane: Igerilekua
- BARNECHE Gerard: Irekidura moldatzea eta terraza eraikitzea

Obren Bukaera Eta Arauen Araberakotasuna Ziurtatzen Duen Agiria (DAACT)

Hirigintza arloko erabaki baten gaia izan diren obren aitzineko deklarazioa eta eraikitzeiko baimena arauen araberakotasunari buruzko egiaztapen batera aurkeztua izaten da.

2022ko bigarren hiruhilekotik goiti, herriak Euskal Hirigune Elkargoko zinpeko agente bat eskatzen ahal du; honek kontrola horiek egin beharko ditu eta, beharrez, hirigintza kodearen hausteak segurtatzen dituen agiri bat idatzi beharko.

Izenpetzaile orok, hastapenean, obrak hasteko deklarazioa aurkeztu behar duela oroitarazia da, eta, obren bukaeran, DAACTaren eskaera.

Obren aitzineko deklarazioa / eraikitzeiko baimenari buruzko edozein galderarako, Herriko Etxeko arduradunarengana joatea gomendatua da, Hazparneko hTHPren araudiarekin bat egiten duela segurtatzeko.

2022KO DIRULAGUNTZAK

Elkarteak	
Association enseignement enfants malades	200
Bake Bidea	100
Croix Rouge	50
Herria aldizkaria	100
Euskaltzaindia	50
Euskal konfederazioa	50
Hemen Elkartea	100
Integrazio Batzordea	400
Irulegiko irratia	200
Kanaldude	100
FNATH	50
Izpindar	50
Korrika	300
Lurzaindia	100
Mediabask	100
Resto du Cœur	200
Secours Catholique	50
Téléthon	100
Ikasleen burasoen elkarteak	
Arberoa Ikastola Aintzina (15 ikasle)	300
Elhuyar (12 ikasle)	240
Ezkia Ikastola (2 ikasle)	40
Ursuya (3 ikasle)	60
Herriko elkarteak	
Arberoako Joaldunak	300
Abarratia	300
ACCA Goratik	300
Artetxea	300
Eskolak	
Arberoa Ikastola	6600
Ezkia ikastola	880

OROTARA EMAN DIRU LAGUNTZAK : 11 620 €

2022ko OBREN PROGRAMA



Bide bazterretako belhar eta zikin mozteak egiten dira herriko bideetan eta oinhan bide askotan, ekainean eta urrian.

OROTARA BEZa BARNE: 6 771.12€

HERRIKO BIDEAK



- Iriberrí bidea: Burdin urtuzko arrolaren drainatze hoditeria eta 300 m²ko mundrun geruza.
- Kittendea bidea: 192 m²ko mundrun geruza.
- Pezoi-aska garbitzea eta lurrak kentzea.

OROTARA BEZa BARNE: 24 737.03 €



ARBEROAN ALAIKI AISIALDI ZENTROA

Arberoan Alaiki aisialdi zentro elebidunak lau herri antolatzaileetan bizi diren familien egiazko beharrei erantzuten die.

Joan den udan, 3 - 13 urte arteko 114 haur errezibitu ditugu uztailaren 11tik agorrrilaren 19ra, 7:30etik 18:00etara, astelehenetik ostiralera, Izturitzeko "Le petit Prince" eskolarekin partekatzen ditugun lokaletan.



Ondokoek osatzen dute lantaldea: Carmen CARCELLER, zuzendaria, ZIGA tituluduna, eta zazpi animatzaile AIGA tituludun: Itxaro DUNATE, Elorri LANDABURU, Leire SUZANNE, Uxue ELOSEGI MARTINON, Elodie CAZAURAN, Elisa BARNETCHE, Laurie LARRANDA; 2 AIGA ikasle: Emilie DUVAL eta Emilie GOYENETCHE.

Haurrak denboran zehar bidaiatzera joan dira (historiaurrea, antzinakoa, Erdi Aroa, oraina eta geroa) eskulan, gorputz-adierazpen, kirol eta joko desberdinen bidez. Izadi erdiko ateraldiak antolatuak izan dira baita topaketa egunak ere (kanpatzea Arberoan, ibilketa Abarratian, labirintoa eta zurezko jokoak, aitatxi-amatxiren loteria, Laaseko gaztelua, animalien bisita Izturitzeko zahar etxearen egoiliarrekin).

Oporraldi ttipiak gai desberdinen inguruan iragan dira (koloreak, olinpiadak, Koh Lanta, itsasoko animaliak eta piratak), jokoaren bidez (kirolak, eskulanak, musika, animazioak...). Ibilaldiak oihanean eta ibilketak antolatuak izan dira Izturitze herriko eremuan baita animazioak, esku hartzaileak eta kanpoko ateraldiak ere (Biarritzeko akuaria, Hondartza Handia, Pontx pailazoa, Hazparneko zinema gela).

Euskaraz Josta dispositiboa plantan ezarria (eskolatik kanpo) udatik goiti, Euskal Elkargoak proposaturik, aisialdi zentroaren bizi une orotan euskara sustatzeko. Haurrei euskara garatzeko eta euskal kultura ezagutzeko bidea eskaintzen die modu jostagarrian, jarduera desberdinen bitartez (egun erdi bat euskaraz, beste erdia frantsesez, *ERDIZKA* hizkuntza ereduari jarraikiz).

2021-2022 ikasturterako, asteazkenei dagokienez, zentroak gehienez 40 haur errezibi zitzakeen. 69 haurrek zerbitzua erabili zuten. Etorri diren haurrek asteazken goiz guziz kanpoko esku hartzaileek eramandako jarduera anitzez gozatu dute (pilota, eltzegintza, errugbia).

Esku hartzaileez gain, Aurélie BISCAYCHIPY, Audrey IPUY, Elorri LANDABURU, Uxue ELOSEGI MARTINON eta Karine HILDERAL andereek mota anitzeko jarduerak proposatzen dizkie haurrei, haien erritmoari egokituz.

Argibideak nahi baldin badituzu, ez duda Carmen CARCELLERekin harremanetan jartzea ondoko helbidera idatziz: arberoanalaiki@isturitz.fr, edo 07.86.49.00.15. zenbakira deituz. Izturitzeko herriko etxea ere dei dezakezu 05.59.29.62.84 zenbakira, aisialdi zentroaren ibilerari buruzko edozein argibiderako.





BIGA BAT HERRIARTEKO ESKOLA ELKARGOA (HEE) AIHERRA ETA IZTURITZEKO ESKOLA PUBLIKOAK

Biga Bat HEEk Aiherra eta Izturitzeko eskola publikoak batzen ditu.

Herri bakoitzeko zinegotziz osatutako sindikatu batzorde batek haren ibilera segurtatzen du. Horien artean dira Frédéric Camou eta Arño Gastambide auzapezak eta ikasle gurasoen ordezkariak. Arño Gastambide da batzordearen lehendakaria.

Haurrek ateraldi desberdinez gozatu ahal izan dute, hala nola, ikasturte bukaeran: Pariserako 3 eguneko bidaia Aiherrren eskolatutako haurrentzat; Hermione ontziaren zaharberritzearen bisita eta Ansoteko ordokiaren bisita Izturitzen eskolatutako haurrentzat.

2022ko sartzean, HEEk 85 ikasle zenbatzen zituen, horrela banatuak:

- **Izturitzeko eskolan** (ama eskolako lehen urtetik lehen mailako lehen urtera): 41 ikasle, frantsesezko 2 irakasle, euskarazko 2 irakasle eta 3 ABLA elebidun
- **Aiherrako eskolan** (lehen mailako bigarren urtetik bosgarren urtera): 44 ikasle, frantsesezko irakasle 1, euskarazko irakasle 1.

Haur guziak sail elebidunean dira, irakaskuntza ordutegi partekatuan egiten da: 12 oren frantsesez eta 12 oren euskaraz, bakoitzak bi egunetan banatuak.

Eskola bakoitzean antolatutako haurtzaindegia batek haurrak errezibitzen ditu 7:30etik goiti; arratsaldean, 18:15 arte ibiltzen da.

Urririkako joan-jinkari batek haurren garraioa segurtatzen du eskola batetik bestera, segurtasun baldintza hobereenetan, laguntzaile baten presentziarekin bidaia guzietan.

Jantegia badabil herri bakoitzean, langile kalifikatuak ikasleen ardura hartzen dute bazkaltzeko eta bazkalondoko denboretan.

HEE lehentasunezko lurraldean eta mendi gunean kokatua da. Ondorioz, haurrak errezibi ditzake bi urtetik goiti.

Izena eman behar da norbera bizi den herriko udaletxean, eskolako zuzendariekin harremanetan jarri baino lehen:

Izturitze: Castillon Bruno: 05 59 29 45 97

Aiherra: Brenot Emilie: 05 59 29 42 13



GIZARTE EKINTZAKO UDAL ZENTROA (GEUZ)

Definizioa: GEUZak herriko gizarte arazoak kudeatzen ditu. Bere aurrekontu propioa dauka. Auzapeza izaten da honen lehendakaria, eskubide osoz.

9 kidek osatzen dute administrazio kontseilua, horien artean:

- **5 zinegotzi tituludun:** Frédéric Camou, Virginie Légarto, Nickie Lelorec , Monique Lohiague, Karine Malé izengoitiz Cazot.
- **Zinegotzi ordezkari bat:** Myriam Gourgues
- Familien, adintsuen eta elbarrituen edo baztertzearen kontra eta gizarteratzearen alde borrokatzen diren **elkarleen 4 ordezkari:** Bernadette Ascery, Claude Candiard, Marie-Pierre Casemajor, Marie-Josée Lacroix.

Esleipenak

Nahitaezkoak: Gizarte Ekintzako dosierrak osatu eta departamenduko zerbitzuei helarazi

Hautuzkoak: araudiak "prebentzio eta gizarte-garapenerako ekintza orokor bat" eramateko baimena ematen dio (Gizarte Ekintzaren eta Familien Kodeko R123-2. artikulua), diru laguntzak esleituz "jendetzaren beharrak aztertu" ondotik (Gizarte Ekintzaren eta Familien Kodeko R123-1. artikulua)

Esleitzeko modalitateak

GEUZak ez du ohiz kanpoko beharrak estimatzeko eskumenik. Beharrez, Hazparneko GEUZari dei egiten dio diagnostiko bat finka dezan.

Diru sartzeak izan daitezke: - Herriak ordaindutako diru laguntza
- Dohaintzak edo ondoriotasunez emandakoak

Erabakiak

Saioak ateak hetsirik iragaten dira administratzaileek sekretua gordetzeko eginbeharra bete behar baitute. Neurri bakar batek ere ez du GEUZaren bilkura agiriak afixatzera behartzen.

Gaineratekoak

Janariz hornitutako saskiak: gutienez 75 urte dituzten eta herrian bizi diren lagunei banatuak izan zaizkie.

Apairu bat antolatuak izan zen ekainean, 60 urte eta gehiago duten pertsonentzat. 30 bat pertsona elkartu ziren.

Laguntza edo informazioak proposatuak dira, desmartxa administratiboak interneten, telelaguntza, eta elkartsasun asurantzak osagarriari buruz (informazio gehiago ukaiteko, herriko etxeari galdegiten ahal diozue).

ELKARTASUN ASURANTZA OSAGARRIA

2019ko azaroaren 1az geroztik, Asurantzaren Osagarri bat ordaintzeko Laguntza (ACS frantsesez) eta Eritasun Geriza Orokor Osagarria (CMU-C frantsesez) ordezkatu ditu Elkartasun Asurantzaren Osagarriak. Hortaz, Elkartasun Asurantzaren Osagarria baliabide berria da, eta osasun-laguntza aiseago eskuratzera eta osasun-gerizaren arloan babes hobea eskaintzera xedatua da.

Mediku-kontsultetarako, tratamenduetarako, hortzetako eta begietako artetarako, entzumen-laguntzetarako eta abarretarako eskubidea ematen du, gastu-abantzurik ordaindu behar izan gabe. Eguneroko prezio finkoan ospitaleratua izateko eskubidea ematen du ere, iraupen mugarik gabe. Eta bestelako eskubide anitz ematen ditu ere.

Urririkakoa edo pagatuzkoa izan daiteke, nor bere baliabideen, adinaren eta familiako pertsona-kopuruaren arabera. Pertsona bakar batek, urtean 9.203 € baino gutiago eskuratzen badu –hots, hilabetearen 767 €–, Elkartasun Asurantzaren Osagarria eskuratzen ahal du, urrik. Pertsona bakar batek, urtean 9.203 € eta 12.424 €-ren artean eskuratzen badu, Elkartasun Asurantzaren Osagarria eskuratzen ahal du, baina pagatuz (euro bat baino gutiago eguneko eta pertsonako).

Simulagailuen bidez zure eskubideak ebalua ditzakezu, webgune horietan:
mesdroitssociaux.gouv.fr edo **ameli.fr/simulateur-droits/public/**

Elkartasun Asurantzaren Osagarriarako hautagarri zarela uste baduzu, hautagaitza galdea egiteko aukera hauek dituzu:

- on line: **www.service-public.fr/particuliers/vosdroitsLR52880**
- gutunez, hemen deskarga dezakezun Cerfa 12504 inprimakia bete eta igorritz: **www.service-public.fr/particuliers/vos droits/R5465I**.

Erien asurantzaren etxeak bi hilabete dituzte erabakia hartzeko.

Desmartzaren horiek egiteko zailtasunak badituzu, Izturitzeko GEUZek lagunduko zaitu.

Horretarako, dei ezazu Herriko Etxera (05.59.29.62.84), eta Herriko Etxea GEUZekin harremanetan jarriko da, zure galdea GEUZi helarazteko.

TELELAGUNTZA

2017az geroztik, Departamenduak telelaguntzako zerbitzu publiko bat plantan ezarri du bere lurraldean.

le64téléassistance departamenduko zerbitzua erabil dezake bere etxean trankilki egon nahi duen adineko jende, jende isolatu, ahalmen urritasun edo mendekotasun egoeran dagoen jende orok.

Oinarritzko zerbitzurako harpidetza-prezioa, zerbitzu publikoaren ematearen parte gisa proposatua, hilabetearen 7,38 eurokoa da, zergak barne. Oinarritzko eskaintzan barne hartzen dira igorgailua eta hedagailua (material berria), instalazioa, mantentze-lanak eta zerbitzu hartzaileen formakuntza. Departamenduak oinarritzko harpidetza horren kostua bere gain hartzen du, Autonomiarako Laguntza Pertsonalizatuaren edo Ezgaitasuna Konpentsatzeko Laguntzaren hartzaileen kasuan.

Zerbitzu hau gastu hautagarria da zerga krediturako.

Argibide gehiago behar baduzu, dei ezazu 05.54.12.06.64 telefono zenbakira.

Zerbitzu honetan harpidetzeko, joan zaitez **le64.fr/le64teleassistance** webgunera edo **autonomie64.fr** plataformara.

Herriko Etxearekin harremanetan jar zaitezke ere, eta hark zure galdea GEUZi helaraziko dio.

Departamenduaz gain, konpainia pribatuek ere eskaintzen dute zerbitzu hori.

DESMARTXA ADMINISTRATIBOAK INTERNETEN

Desmartxa administratiboen digitalizazioaren helburua da galdeak sinplifikatzea eta tratamendu epeak murriztea.

Horra service-public.fr webgunean egin daitezkeen desmartxa administratibo nagusiak:

- Helbidea aldatzea
- Familiari buruzko galdeak (sortze agiria, familia laguntzak, erretretako kontu pertsonala...)
- Soziala eta osasuna (gizarte laguntzak, Pôle Emploi-n izena ematea...)
- Garraioak (autoaren jabego agiria, gidabaimena, isunak...)
- Diru sartzeen deklarazioa (impots.gouv.fr)
- Banku-iruzurraren ohartaraztea (Percev@I)
- Justizia (justiziako bilduma agiria...)
- Atzerria (erien asurantzako Europako txartela...)

Gainera, ANTS webguneak (ants.gouv.fr) ibilgailuen matrikulazioarekin, gidabaimenarekin eta nortasun agiriekin zerikusia duten desmartxak egiten laguntzen zaitu:

- Matrikulazioa: ibilgailua saltzea, autoaren jabego agirian helbidea aldatzea...
- Gidabaimena: azterketarako izena ematea, nazioarteko gidabaimenaren galdea...
- Nortasun agiria / pasaportea: lehen galdea, arraberritzea, derrigorrezkoa ez den baina gomendatua den aitzinetikako galdea...

Datu biometrikoak biltzeko gailu bat duten udalerriek baizik ez dituzte nortasun agirien eta pasaporteen galdeak tratatzen. Izturitzeko Herriko Etxeak ez duenez halakorik, ez du nortasun agirien eta pasaporteen galdeen txostenik onartzen.

Horiek dira galdeak onartzen dituzten Herriko Etxeak: Hazparnekoa, Kanbokoa, Donapaleukoa, Bidaxunekoa, Donibane Garazikoa eta Baionakoa. Galde bat egin nahi baduzu, gorago aipatu Herriko Etxe horietan hitzordua hartu behar duzu.

Txostena aitzinetik bete dezakezu ANTS webgunean.

Horretarako, FranceConnect-ekin saioa has edo identifikatzailea eta pasahitza dituen kontu bat sor dezakezu.

Desmartxa horiek egiteko zailtasunak badituzu, Izturitzeko GEUZek lagunduko zaitu, edo ordenagailu bat zure eskuko ezarriz, edo langile batek zu lagunduz.

Horretarako, dei ezazu Herriko Etxera (05.59.29.62.84), eta Herriko Etxea GEUZekin harremanetan jarriko da, zure galdea GEUZI helarazteko.

AIRETIKAKO LINEA INGURUETAKO LANDAREEN XEDARRATZEA

Telefonia konpainia desberdinak ohartu dira etxe batzuetako landareek airetikako lineen sarean mantentzea eta hedatzea eragozten zutela.

Gainera, kableak hunkitzeak eta adarrak erortzeak eguraldi txarra delarik sarearen ibilera traba dezakete eta telekomunikazio zerbitzua geldiaraz litzaketen kalteak eragin ditzakete.



Oroitarazten dizuegu jabe gisa zuei dagokizuela zuen landareak xedarratzea, saretik hurbil daudelarik.

Airetikako lineetatik metro bateko urruntasuna utzi behar da.

Segurtasunagatik, eginbehar hori betetzea eskertuko nizueke.

Elektrika linea batetik hurbil xedarratzekotan, behar diren neurriak hartzea ezinbestekoa da. Herriko etxeak aholkuak eman diezazkizueke aitzinetik hartu beharreko neurriei buruz.

Zuen gogo onarekin eta sarearen kalitatea mantentzeko ekarritako laguntzarekin kontatzen dugu eta horregatik eskertzen zaituztegu.



TOKIKO LUBERRITZE BATZORDEA HERRIKO LARREEN KUDEAKETA

Lehen tokiko luberritze batzorde bat eta herriko larreen kudeaketarako batzorde berri bat antolatua izan dira 2022an. Tokiko langabarekin Laborantza Ganbarak lagundutako neurri honen helburua da artzaintza modu berriak garatzea eta, eremu batzuetan, luberritzea murriztea eta antolatzea.

ERREFERENTZIAZKO PLANA

Euskal Elkargoarekin elkarlanean 2021ean abiatu dugun ikerketa honi esker, gure burgu barnearen bilakaerari buruz gogoetatzeko eta asmatzeko bidea ukan dugu, epe ertain eta luzean, arkitekto-hirigile batekin, Departamenduko Kontseiluarekin eta Arkitektura, Hirigintza eta Ingurumenaren Kontseiluarekin.

- Burgu barneko hiri antolaketa eta garapenari buruz, ekipamendu publikoen sortzea barne hartuz zerbitzu eskaintza berriei erantzuteko, baita etorkizuneko bizitegien sortzea jendetzaren bilakaera segitzeko eta Euskal Hirigune Elkargoak onartutako Tokiko Bizileku Programaren helburuekin bat etortzeko.
- Ekipamendu publikoak balorizatzea, identifikatzea, seguru eta helgarri ezartzea, besteak beste atari bat sortuz herriko etxean eta "le Petit Prince" eskola eta Arberoan Alaiki aisialdi zentroa aterpetzen dituen Harpe Alde etxean.
- Mugikortasunak hobetzea, lotura eztiak sortuz auzotegien artean ibilgailuen erabilera murrizteko; baita oinez eta bizikletaz ibiltzeko ohitura sustatzea ere eta antolaketa segurua sortzea garraio publikoen erabilerako (Txik-Txak eta eskola sareak).
- Ingurumen arloko erronkak kontuan hartzea antolaketak aldaketa klimatikoari egokituz, bioaniztasuna lagunduz eta gune landatuak hobetsiz, paisaia nortasun bat finkatzen saiatuz.

Zinegotziek denen arteko gogoeta parte hartzailea eraman nahi izan dute. Horregatik, lehen aurkezpen biltzar publiko bat antolatua izan da. Ondotik, hirigintza-bisita bat eta lan tailerrak antolatuak izan dira non herritar askok haien ikuspuntua agertu ahal izan duten, bakoitzak proiektua bereganatuz, bere gisan.

Urraspide honetan parte hartu duten herritarrak eskertzen ditugu trukaketen kalitatearengatik.

Emaitzei buruzko biltzar publiko bat antolatuko dugu laster burgu barnea zeharkatzeko aurreikusitako antolaketa desberdinak aurkezteko.

Udaberri honetan, obralaritza bat kontratatzekeo deialdia luzatzen dugu, lehen obrak 2023an hasteko asmoz.



BERRIAK

ALOKATZEEN PREZIOAK

Denen Etxea	Isturiztarrak	Kanpokoak
- Egun erdia	200 €	400 €
- Egun osoa	350 €	700 €
- Gutenez 50 pertsonako taldea	200 €	400 €
"On Egin" kantina	100 €	200 €

TRINKETEA

Oren bat, argirik gabe, 18:00etatik goiti: 7 €

Oren bat, argiarekin, 18:00etatik goiti: 10 €

Larunbat goizean eta igandean 18:00ak arte, trinketea urrik da herritarrendako.

TRINKETEAREN IREKITZEKO

1. Deitu 06 67 90 19 88 zenbakira, kutxaren irekitzeko kode zenbakiaren eskuratzeko.

2. Jostatu trinketea.

3. Giltza bere tokian ezarri aitzin, segurtatu trinketeko atea ongi hetsia dela.

4. Aldatu kodea, giltza-kutxa blokatzeko.

Ekipamendu publikoaren ibilera onaren bermatzeko, denen ardura da trinketea ahal bezain egoera hoberenean mantentzea. Heltzean, galdutako zaizue trinketearen egoera ona kontrolatzea; kalteak agertuz gero, azken erabiltzailea izanen da eragin kalteen erantzulea. Trinketa erabiltzen duten haur adingabeen kasuan, burasoen erantzukizuna da protokoloak errespetatzea.

ERABILERA ANITZEKO SALA EDO DENEN ETXEA

Herriko elkarteek urrik baliatzen ahal dute, baina elkarte bakoitzak urtean gehienez 3 aldiz baliatzen ahal du. Laugarren alditik goiti, elkarteak 100 € pagatu beharko ditu gertakari bakoitzeko.

Herriko pertsona batek sala bi egunez baliatzen badu ezkontza baten ospatzeko, alokairuaren prezioa egun batekoa izanen da.

Kasu guzietan alokairu kontratu bat sinatuko da, **gertakaria baino hilabete bat lehenago**. Kontratuari barne araudia erantsiko zaio.

Salaren alokatzeko, Herriko Etxera joan behar duzu kontratua eta barne araudia sinatzeko eta berme txekua uzteko.

Oharra: Besta Komiteak eta Herriko Etxeak jakinarazten dute mubleak (mahaiak + aulkiak) urrik prestatzen dituztela. Zerbitzu hau interesatzen bazaizu, jarri harremanetan Herriko Etxeko idazkariarekin. Hartu eta itzuliko diren bakoitzean, prestatze-erregistroa sinatu beharko da.

JOSTALEKUA

Eskolaldian:

Jostalekua ez daiteke erabil eskolako tenoreetan.

Jostalekua erabil daiteke asteburuetan.

Jostalekua erabil daiteke asteazkenetan, 14:00etatik goiti.

Jostalekua erabil daiteke astelehen, astearte, ortzegun eta ortziraletan, 17:00etatik goiti.

Eskola bakantzetan:

Aisialdi zentroak eraikina erabiltzen duelarik:

Jostalekua erabil daiteke egutegiaren arabera.

Aisialdi zentroak jostalekua arratsaldean erabiltzen duelarik, 18:30etik goiti jendeak erabil dezake.

Aisialdi zentroak ez duelarik jostalekua erabiltzen, jendeak erabil dezake.

Salbuespen gisa, debekatua izan daiteke jostalekua erabiltzea.

Denak goxoki sentitzeko eta denak errespetatzeko, jostalekua beti garbi utzi behar da. Horretarako, zikinontzi anitz daude denen eskura.

IDAZKARITZAREN ORDUTEGIA

	Goiza	Arratsaldea
Astelehena	8:00 – 12:30	
Asteartea	8:30 – 12:30	13:30 – 17:00
Asteazkena		
Ortzeguna	8:00 – 12:30	
Ortzirala	8:00 – 12:30	13:30 – 18:00

HERRIKO IKASLE LAGUNTZAK

Goi-mailako irakaskuntzan (baxotik goiti) izena eman duten ikasle guziei galdegina zaie Herriko Etxeari lehenbailehen jakinaraz diezaiotela, ikasle laguntza bat eskura dezaten (lehen galdea egiteko, bankuko nortasun agiria eta eskolatzeko agiria eman behar dira). "Prépa" edo prestakuntza klasean izena eman duten ikasleek ere ikasle laguntza eskuratzen ahal dute, baina prestakuntzaren iraupenaren arabera.

Oharra: ikasle laguntza urte guziez ordainduko zaie, maiatzetik goiti, aitzineko ikasturte sartzean izena eman zuten ikasleei.

AKITANIA BERRI ESKUALDEKO KONTSEILUKO LAGUNTZAK

B permisa : Akitania Berriko Eskualdeak proposatzen duen B gidabaimenaren finantzaketarako laguntza ukaiteko, lau irizpide hauek bete behar dituzu:

17 eta 25 urte artean izatea, bac edo infra bac mailako formakuntza batetik ateratua izatea Laneratze baten alde engaiatua izan, Baliabide baldintza batzuei erantzutea.

BREBETERAKO LAGUNTZA : BAFA, BAFD ETA BNSSA

Aukera berdintasunean, gazteen autonomia eta engaiaimendua bultzatu nahi duten eskualde lehenetasunen arabera, Akitania Berria eskualdeak bere gain hartzen ditu Animatzaile eta Zuzendari Karguetarako Gaitasun Brebeteen (BAFA eta BAFD) eta Segurtasun eta Ur Salbamendu Brebeta Nazionalaren (BNSSA) zati bat.

Onuradunak 16 eta 30 urte bitarteko gazteak dira, Akitania Berrian bizi direnak, eta haiei atxikia den etxeko erreferentziazko zerga errenta 12.000-tik beherakoa da.

Eskualdeko laguntza da:

- 200 €BAFA batendako,
- 400 €BAFD batendako,
- 150 €BNSSA igerileku batendako,
- 400 €BNSSA ingurune natural batendako (ibilbide osoa).

Laguntzak metagarriak dira, brebeta bakoitzeko baten mugaraino.

Xehetasun gehiagorendako : <https://les-aides.nouvelle-aquitaine.fr/economie-et-emploi/aides-aux-brevets-bafa-bafd-bnssa-0>

ERROLDA, "DEFENTSA ETA HERRITARTASUNA" EGUNA

Frantses herritartasuna duen orok, 16 urterekin, Herriko Etxeak errola dezan galdegin behar du. Baitezpadakoa da konkurtsoetara, etsamina publikoetara eta gidabaimenera aurkeztu ahal izateko.

HILERRIA

Herriak bost hilobi sortu zituen. Lau libro dira. Interesa duen orok Herriko Etxeari galda diezaioke.

HILERRIKO LEKUEN EMATEA

Familiako hilobi baten jabea bazara, segurta zaitetz jabego titulua baduzula; haurrei ematen ahalko diezu. Argibide gehiago nahi izanez gero, Herriko Etxeari galda.

WEBGUNEA / HERRIKO BERRIAK

Herriko azken berriak, hurbilketa administratiboak, herriko kontseiluko agiriak eta informazioak, isturitz.fr internete gunean aurki ditzakezue.

Informazio hauek Internet bidez jaso nahi badituzue, igor zuen helbide elektronikoak: isturits-com@outlook.fr

ZUNTZA

Oraingoan, Fibre 64 zuntz optikoari lotu daiteke gure herrian operadore batzuen bidez. Sare arazoengatik Internet harpidetza baten hartzeko zailtasunak baldin badituzu, Herriko Etxeko idazkaritzari jakinaraz, otoi. Orduan, THD64 zerbitzuarekin harremanetan jarriko gara.

Esteka honen bidez, jakiten ahal duzu zure etxeak zuntz optikoa izaten ahal duen: <http://thd64.fr/carte-deligibilite/>

KOMERTZIO IBILTARIAK

Beren mozkin ta zerbitzuak balia ditzazkegu :

- Mutturfin Food Truck-ak, asteko menu bat eta anburgesak lur sagar frijituekin proposatzen ditu, lekuko mozkinaz hornituak. Bi asteartetik behin trinketeko aparkalekuan egoiten da, 18:45-etarik goiti.
- Rôtisserie erretegiak, oilasko, nuggets, ta lur sagar frijituak proposatzen ditu. Ostiral arrats guziez trinketeko aparkalekuan egoiten da.

BEHARREN ZERRENDATZEA

Hazparneko Lurraldeko hamaika herrietan laborantxaren garapena laguntzeko xedez, 2022ko uztailan, laborariak bilkura batera gomituak izan dira : helburua zen beharren eta ekintza proposamenen biltzea.

Hastapenean orroitarazia izan da laguntzeko molde ezberdinak EHE mailan jadanik existitzen direla, hiru proiektu deialdiekin:

- Baserri berritzaileak eta laborantza ekologikoak
- Zirkuitu laburrak
- Produktu berriak

Proiektu eramaileek heldu den ekainaren 26a arte eskaera egin dezakete. Informazio eta hautagaitza guzientzat: aap@communaute-paysbasque.fr

VMHE PAYS BASQUE: ERI ETXEETAN DAUDENAK BISITATZEA

Elkarteak boluntarioak bilatzen ditu, zenbait oren astean aritzeko, **Izturitzeko Pausa Lekua eta Iholdiko Goxa Leku zahar etxeetako** egoiliarak bisitatzeko.

Bisita guti dituzten horiei eguzki izpi bat ekartzeko gogorik baldin baduzu, gurekin harremanetan jar zaitezke telefonoz edo e-mezuz.

Tel: 06 03 31 22 10

helbide@: vmeh-pb@sfr.fr

IBILKETA ETA BERE OHIDURAK

Eguraldi ederrarekin batera heldu da ibilaldien garaia, gure bide eta mendietan. Ibil gaitezen segurtasun osoz eta gure ingurumena eta ohidura desberdinak zainduz, hala nola laborantza jarduerak:

- Gogoan hartu hesiak hestea zuen gibeletik
- Ahalez zuen zakurra ez ezazue ibilaldira eramane, edo sokatik atxik ezazue
- Animaliak ez hunki eta ez bazkatu
- Suak debekatuak dira
- Ibilbide bazterrean diren etxe pribatuak errespetatu



Argibide gehiagorako: www.communaute-paysbasque.fr

BAITEZPADAKO DEKLARAZIO BERRI BAT JABEENTZAT

Dakizuen bezala, bizitegi nagusien gaineko bizitegi zerga kenduko da 2023tik aitzina. Bigarren bizitegien gaineko eta hutsik dauden lokalen gaineko bizitegi zergak aldiz mantenduak dira. Zerga zerbitzuei aipatutako bizitegiak ongi identifikatzeko bidea emateko xedez, baitezpadako deklarazio berri bat plantan ezarria izan da, zergen kode orokorreko 1418 artikuluan sartua.

Jabe gisa, baitezpadako deklarazio horrek hunkitzen zaitu. Orduan, dituzun lokal guziei dagokienez (aparkalekuak, sotoak eta abarrak barne), adierazi behar diguzu nola baliatzen dituzun eta, ez badituzu zuk baliatzen, okupatzaileen nortasuna eta okupazio epea (2023ko urtarrilaren 1eko egoera).

Zure deklarazioa errazteko, zerga zerbitzuek dakizkiten datuak jadanik sartuak dira. Hala ere, datu guztiak zuzenak direla segurtatzea garrantzitsua da. Hala ez bada, zuzendu behar dituzu. Lehen deklarazio honen ondotik, egoera aldaketa batek soilik eskatuko luke deklarazio berri bat.

2023ko ekainaren 30a arte duzu zure ondasunen okupazio egoera deklaratzeko, impots.gouv.fr webguneako "Biens immobiliers" erlaitzean.

Zure deklarazioa egiteko laguntzarik behar baldin baduzu, 0 809 401 401 zenbakira dei dezakezu (urrik + dei arrunt baten prezioa), astelehenetik ostiralera, 8:30etik 19:00etara.

HIRIGUNE ELKARGOAREN ESKUMENAK

XEHETASUNAK	
URA / GARBITZEA	Quartier Labiry, Route de Cambo - 64240 Tél. 05 59 29 17 72 Hasparren
ETXE HONDARKINAK	Tél. 05 59 57 11 80 / 05 59 28 78 77 dechets.barnekalde@communaute-paysbasque.fr
MUGIKORTASUNAREN SINDIKATA	Tél. 05 59 44 77 77 txiktxak@communaute-paysbasque.fr transportsscolaires@communaute-paysbasque.fr
HAZPARNEKO HERRIGUNEA	Services généraux MAISON DE LA COMMUNAUTÉ - PÔLE PAYS DE HASPARREN 54, rue Francis Jammes - 64240 Hasparren Tél. 05 59 29 16 47

ONDARKINTEGIEN ORDUTEGIA

Beskoitze

Astelehena eta asteazkenetan : 15.00 – 19.00

Ortzegunetan : 10.00 – 12.30 / 15.00 – 19.00

Larunbatetan: 10.00 – 12.30 / 14.00 – 18.00

Heleta

Astearte eta ostegunetan: 16.00 – 19.00

Larunbatetan: 10.00 – 12.00 / 13.00 – 17.00

2022ko GERTAKARIAK

ARBEROAKO OSTIRALAK

Izturitze, Aiherra, Donostiri eta Donamartiriko herriek asteroko animazio erregularrak sortzea erabaki dute, herri bakoitzean, uda osoan zehar.

Arberoako ostiralek ibarreko herritarrei, udatiarrei eta kurioseiei elkar topatzeko bidea eskaini die, animazio horiek kari.

Horrela, uztail eta agorritik osoan aldizkatu dira mutxikoak, pilota partidak, herri kirolak, arroltze moleta txapelketak, kantaldiak, aizkolariak, ibilaldiak eta animazioak Abarratia tontorrean, etab., ostiraleko, gaualdia antolatzen zuen herri bakoitzeko elkarte eta boluntarioek zerbitzatutako erreki eta taloen usain goxoekin.

Herriak, mobilizatu diren lau herrietako elkarte eta eragile guztiak eskertu nahi ditu.



KORRIKA 2022

KORRIKA 11 egunez eta 10 gauez Euskal Herrian gaindi gelditu gabe dabilen lasterketa bat da. AEK elkarteak du antolatzen, helduei zuzendutako Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea. Bi helburu ditu: alde batetik, Euskal Herriko biztanleen mobilizazioa zabaltzea eta indartzea eta, bestalde, helduei zuzendutako hizkuntza ikastetxeen garapenerako behar diren funtsak biltzea.

Aurten ere, gure herriko biztanleek eta elkarteek ekitaldi honetan parte hartu dute. ARTETXEA elkarteak, Arberoako JOALDUNAK eta herriko kontseilua gogo onez joan dira Hazparneko gainetara tokatzen zitzaizen kilometroa kurritzeko. Zaleenek distantzia askoz handiagoa kurritu dute. Ondoko hitzordua jadanik finkatua da 2024an. Trebatzeko astia ukanen dugu kirolari trebeenekin lehian izateko!



KARRIKARTEA ZETORREN IZTURITZERA

2022ko urriaren 3tik 17ra, San Frantziskon sortutako nazioarteko artista amerikarra John Wentz gure herrira etorri da egonaldi artistiko baterako.

Gizakien aurpegia lantzeko famatua den margolari garaikide honek fresko bat sortu du pilota plazan.

Ekitaldi hori karrikarteari eskainitako "Point de vue" festibalaren programazioan sartzen zen. Festibalaren bosgarren edizioa izan da 2022an, formula berarekin: 5 eguneko festibala Baionan eta 15 eguneko egonaldi artistikoak 3 herritan: Uztaritze, Irulegi eta Izturitze.

Karrikartea, arte garaikide hori eta artista horien lana ezagutzeko bide bat. Handi zein ttipientzat, "grafitigileak" zuzenean lan egiten ikusteko eta fresko bat egun batetik bestera sortzen ikusteko parada. Aire zabaleko museo "ttipi" bat. Herriko sarreraren itxura aldatzen duen obra.

Eta, historia ez ote den errepikatzen galdegin geniezaioke gure buruari...
Duela milaka urte, Izturitzeko harpeetan bizi izan diren historiaurreko gizakiek margolan eta grabadura ugari utzi zituzten Erberua harpean, labar-arteko leku magikoa eta paregabea bihurtuz. Oso famatua den Bansky karrikaristak zioen bezala: "Karrikartea 21. mendeari izaten da labar-artea historiaurreari izan zena".

Biztanleek John Wentzekin biltzeko aukera izan dute Haramboure jatetxean antolatutako gaualdi baten denboran gure herria aurkezteko, baita freskoa egiteko urratsei buruz trukatzeko ere. Aste hondarrean, berriro herriko jantegian errezibitu dugu bere obraren urratsak eta helburua azal diezazkigun trago eta askari baten inguruan, ongi egiten dakigun bezala.



HONDAKIN BILKETAREN ERREFORMA

2023ko urtarrilaren 1etik goiti eta hondakin bilketaren erreforma indarrean denetik, hona osoa ez den hondakin birziklagarrien zerrenda.



PLASTIKOZKO ETA KARTOIZKO ESTALKIEI DAGOKIENEZ, JADANIK BEREIZTEN DITUZUE:

- Plastikozko botilak eta flaskoak
- Kartoizko estalki ttipiak, zereal eta bixkotx ontzi motakoak...
- Edari estalkiak, esne brika eta fruitu zuku brikatxo motakoak...

2023ko URTARRILAREN 1etik GOITI, HORREZ GAIN BEREIZTEN DITUZUE:

- Plastikozko zaku eta zakutxoak
- Plastikozko janari ontzixkak
- Hazkurrien estaltzeko plastikozko mintzak
- Plastikozko jogurt eta esne-gain ontzixkak
- Maionesa edo hortz-pasta hodiak



METALEZKO ESTALKIEI DAGOKIENEZ, JADANIK BEREIZTEN DITUZUE:

- Soda botilañoak
- Kontserba ontziak
- Ziropa botilak
- Aluminiozko ontzixkak
- Espraiak (huts-hutsak)

2023ko URTARRILAREN 1etik GOITI, HORREZ GAIN BEREIZTEN DITUZUE:

- Kafe kapsulak
- Botila kapsulak
- Ontzi tapak
- Sendagailu tabletak (hutsak!)



Nire hondakinak ordainduko ote ditut pisuaren arabera?

Euskal Hirigune Elkargoak ez du mota horretako fakturazioa plantan ezartzeko xederik, oraingoz, ohartu baita edukiontziak ezagutgailu baten bidez irekitzeak utzitako hondakinen kopurua murrizten zuela modu adierazgarrian. Herritarrek haien hondakinak gehiago bereizten dituzte eta, bestalde, kanpokoek eremu publikoan kokatutako edukiontziak askoz gutiago erabiltzen dituzte.

Zer egin ezagutgailu bat galtzen dugularik?

Euskal Hirigune Elkargoarekin harremanetan jarri 05 59 57 11 80 zenbakira deituz edo ondoko helbidera idatziz:

dechets.barnekalde@communaute-paysbasque.fr (ezagutgailuaren prezioa: 5€)

Ohar gisa:

Gainerateko hondakin guziak (trabagarriak, kartoiak barne, toxikoak...) hondakindegira eraman behar dira. Hondakinak basaki uztea (edukiontzi ondoan ere) eta erretzea arras debekatua da eta isunaz zigortua izan daiteke.



ELKARTEEN BIZIA

HERRIAN



BESTA BATZORDEA

2022ko urtean, komiteak hiru ekitaldi antolatu ditu.

Urtea ihauterierekin hasi da, Artetxea elkartearekin antolatua izan da otsailaren 26an. Gaia: Isturitzeko kaskoetako bizidunak. Egun iguzkitsa hortan ehun bat jende plazan bildu zen, zenbait garagardoan edateko karroen inguruan.

Bigarren ekitaldia, Sagardotegi afaria, apirilaren 30an. Hurbildu diren jendeek gozatu dute "LE CUISTOT GOURMAND"-ek prestatu zuen bazkaria. Gaualdia EDANTZA TALDEAK eraman du goizeko 4ak arte. Ekitaldi hau berriz emana izanen da bosgarren aldikotz 2023an.

2022 urteko hirugarren ekitaldia, Isturitzeko pestak izan dira. Arrakasta haundi bat ezagutu dute aurten.

Usaian bezala, ostiral arratsez hasi dira. Gaur dantzatzu hasi zen ARBEROA TXARANGAK eramanik eta kantatzu segitu ANDONI OILOKIEGIREKIN. Giro goxo eta alai batean iragan zen.

Larunbatarekin zenbat aldaketak izan ziren. Zikeroak arrakasta handi bat ukan du, 360 sartzerekin. Eta gauaren segida ez da plazan izan usaian bezala. KOLOKA taldeak sua eman du Isturitzeko denon gelan afaria eta gaualdia animatuz.

Igandean, usaiatzko aperitifak, JULEN AHAMENE ETA BERE LAGUNEK dute animatu eta eraman gaituzte Artetxeko kantu bazkarirat. Arratsaldean indar jokoak plazan. 50 bat jende bildu zen ARBEROA XITOAK taldea ikusteko, Donamartiriko taldea. Pestak plazan bukatu dira SALTOKA taldearekin, jendea bildu zen azken gau goxo honentzat mutxikoen dantzatzeko.

Urtea herritarren bazkariarekin bukatu da Urriaren 22an. Sébastien OLAIZOLA eta pesta komiteak zuten bazkaria prestatu. Errugbizaleek Baiona/Perpignan matxa so egiteko momentuan, besteak dantzari ari izan dira AISTRIKA taldearekin.

Bulegoa aipatzeko, abendoan zorbait aldaketa izan dira. David ETCHEMENDY et Iban SAINT-ESTEBENek lehendakari postua hartu dute. Manon MESPLESek diruzain segitzen du. Idazkari postuan, Anaïs CASEMAJOR eta Bixente HARAMBOURE.

Pesta komitekoek, laguntzaile guztiak eskertzen dituzte eman duten esku ukaldiarentzat. Eta milesker handi bat komitean sartu diren gazteak, biba zuek!

Milesker ere zuei, herritarrei, zuen parte hartzeagatik, eskuzabaltasunagatik eta zuen umore onagatik...

Fitesko berriz elkartuko gira!





ARTETXEA

2022. urtea aberatsa izan da gure elkartearentzat.
Aurten ere animazio ezberdinak proposatu nahi izan ditugu publiko ahal bezain zabalarentzat.

Huna animazio hauen berri :

Otsailaren 18an EHko MUS txapelketan parte hartu zuten 12 ekipek. Hauetarik 3 sailkatu ziren Benafarroko finalarentzat baina maleruski nehor ez da sailkatu finala haundiarentzat...

Otsailaren 26an Hazparne eskualdeko ihauteriek geldialdi bat egin zuten herriko plazan. Herriko pesta taldearekin batera, ostatu eta talo eskaini genizkien hurbildu ziren guziei. Jende gehienak mozorrotuak ziren eta herriko plaza airostu ondoan pare bat orenez haien ibilbidea segitu zuten.

Aprilaren 2an KORRIKA n parte hartu genuen. Aurten ez zen herritik pasatu, beraz Paxkoeneko kaskoan genuen hitzordua eta han laster egin genuen Arberoako joaldunekin, pesta taldearekin eta Herriko etxekoekin, elkarrekin erosi genuen kilometro partekatuan.

Uztailaren 29an arroltze moleta txapelketa antolatu genuen Arberoako joaldunekin "Arberoako ostiralak" ekitaldien kari herriko plazan. Dozena bat taldek parte hartu zuten giro onean.

Agorrilaren 27an usaiako kantaldia izan zen. Hertzainak taldeko Garik egin zuen lehen partea. Bere azken diskoko kantuekin batera bere kantu hoberenak tartekatu zituen. Ondotik "Xiberotarrak" taldeak bazterrak inarrosi zituen denak kantuz arraraziz!

Urriaren 1ean 2 antzerki eskaini zituzten herriko 10bat gaztek. Hiru hilabetez lan egin ondoan Peio Berterretxen laguntzarekin, "Motoa" eta "Edgar" antzerkiak eman zituzten. Ondotik Beskoitzera eta Heletara ere gomitatuazk izan ziren.

Urriaren 2an kantu bazkariaren aldi izan zen. Usaian bezala, marmitako bazkaria izan zen, Watson animatzaile, aurtengo gomita berezia Erramun Martikorena genuelarik!

Azaroaren 27an arno jastaketa izan zen. Arno ona, pintxo goxoak eta Morau kantariaren kontzertua. Igande eguerdi pollit bat.

Abendoaren 3an arrakasta haundia ukan zuen Unai Iturriaga eta Igor Elortzarekin antolatu bertso afariak. Ehun bat afaltiarrek preziatu ahal izan zuten afaria eta bertsolari hauen trebezia... Gaualdi hau Arberoako joaldunekin antolatu genuen Euskaraldia ekimenaren kari.

Abendoaren 10ean "Mandotik astora" antzerkia eman zuten dozena bat herritarrek publiko murriztu baten aitzinean. Hean 2023an publiko zabalak gozatzeko paradarik ukanen duen!

Bestalde oroit animazioez aparte, hainbat jarduera proposatuak direla astean zehar urte osoan: Yoseikan budo arte martzialak haur eta helduentzat, STEP kurtsoak haur eta helduentzat, Euskara ikasteko kurtsoak helduentzat, Komunikazio Ez Bortitza pratika taldea helduentzat eta kantu eta gitarra errepikak helduentzat.

2023ko ere berdintsu segitzen saiatuko gira, egitarau ainitza eskainiz. Elkarte pixkor da, herriko beste elkarte batzuekin partaidegoan, bide beretik segi dezala.

Elkartean sartu nahi izanez gero, gurekin harremanetan sar zaitezke!
Tel : 06 31 64 60 88





ERBERUA

2023ko martxoaren 3ko ERBERUAko biltzar nagusia hasi dugu Jean Jacques Ascery gogoratuz, 2022ko agorrilaren 11n hil zitzaiguna. Elkartea, kide guziak, boluntario guziak Bernadette eta haren familiaren ondoan daude garai latz horiek gainditzen laguntzeko.

Zenbait ekitaldi 2022. urtean zehar:

- **2021/2022 pala zabal txapelketa**

Euskal Herri osotik etorritako 53 talde bildu ditu. 2021eko azaroaren 29an hasi da eta finalekin bukatu 2022ko apirilaren 2an. 29 ginen ondoko afarian, HORDAGO jatetxean.

Boluntario frankoren mobilizazioari esker ongi zuzkitua izan da, eskertzen ditugu, zinez, pilotariak poz-pozik zeuden errezibitu dituzten opariekin.

Boluntariorik gabe, txapelketarik ez. Eric Mimiague eskertzen dugu afixengatik, Jean Marc Daraspe izen emateak kudeatzeagatik; Philippe Garispe gibelatutako partidak kudeatzeagatik baita egutegia finkatzeagatik ere Battitte Erreçaret eta Véronique Garayren laguntzarekin; José Carceller edantegiaren ardura hartzeagatik; epai guziak eta edantegia kudeatu duten guziak.

- **2022ko apirilaren 4ko boluntarioen ateraldia**

Ahuskyra joan gara autobusez, Altzürükün, hango *Auberge* jatetxean bazkaltzeko. 30 ginen; arazo ttipi bakarra, eguraldi nahasiak ez digu mendiko paisaia zoragarriak miresteko bidea eman. Haatik, eguna arras ongi iragan da, giro goxo-goxoan, parte hartzaileak loriatuak ziren. Hordagon bukatu da 15 lagunene arteko arroltze moletarekin.

- **2022ko urriaren 30eko ibilaldia**

643 parte hartzaile izan dira, horietako 417 oinez eta 227 bizikletaz, heldu eta haur. "D'Héauritz à Paris 2024" elkarte hautatu genuen izen emate bakoitzaren euro bateko hartzaile gisa. Laguntza honi esker, Herauritzeko zentroko urritasun bat duten 6 lagun joaten ahalko dira Parisera 2024ko iraileko joko paralinpikoak ikustera.

Bihotz-bihotzez eskertzen ditugu:

- Boluntarioak, egunean bertan haien laguntza ekarri baitute aparkatzeko, izena emateko, hornitzeko, segurtasun puntu desberdinetan, janari zerbitzuan, sukaldarien ondoan: Bernadette eta Virginie; eguna arrakastatsua izan dadin aritu dira.

- Beren lurretatik iragaten utzi gaituzten jabeak.

- Hainbat gaualdi zirkuituak garbitzen iragan dituzten pertsonak, eta egunean zehar sasiak moztu dituztenak.

- Ibilgailuak segurtasun osoz aparkatzeko haien larrea gure esku ezarri duten Jean Michel eta Sylvain Donapetry.

Egun bakar baten denboran, Izturitzek kontatzen dituen herritarrak baino jende gehiago bildu ditu. Horrek 60 bat lagunene lana eskatzen du.



GORATIK

IZTURITZEKO ONETSITAKO IHIZI ELKARTEA

Izturitzeko Onetsitako Ihizi Elkarteak hogeita hamar bat ihiztari biltzen ditu (horietarik erdia ez delarik herrian bertan bizi) 1 300 hektareako azaleran.

Topatzen den ihizia oraindik basatia da, ez baita askatzerik egina izan azken 15 urteetan. Noski, ibiltzen zaretelarik gurutzatzen dituzuen orkatzak, basurdeak, azeriak eta, batez ere, erbiak, buztangak edo untxiak (maiz birpopulatze bat behar duten ihizi xeheak) arras ongi ezagutzen duten lurralde batean sortu eta bizi dira.

Badu 2 urte orein bat dabilela Izturitze, Oragarre eta Donamartiriko gainaldeetan. Ihiztari batzuek ikusi dute... Beste batzuek (zorte gutiagokoak baina behatzaile onak) honen hatzak ikusi dituzte: aztarnak lohian edo zuhaitzeko azalean.

Aitzineko urteetan bezala, ihizi larriari (orkatzak / basurdeak) lotzen dira ihiztari gehienak, izan talde-ihizian (ihizaldiak) edo bakarkako ihizian (zelata-ihizia, postu finkoko ihizia). Gaur egun, Izturitzeko herrian, ihizia planean sartutako orkatzen 1/3 (16 animalia sasoika) zelata-ihizian / postu finkoko ihizian ihiztatuak dira.

Zakur ihiztorrak dituzten ihiztariak (basoilarrak eta pekadak) aukera politak ere dituzte: ihiztari guti eremu zabalean (gune bat baino gehiago etxerik gabekoak) eta, beraz, ihizi presio oso apala.

Ulertu duzuenez, Izturitzen dabiltzan ihiztariak eta haien zakurrek baldintza biziki onak dituzte ihizian ibiltzeko.

Erran bezala, ihizia aire zabala da, indar fisikoa, zakurr(ar)en lana, maiz esku-hutsik itzultzea, batzuetan arrakasta izatea. Baina oroz gainetik, gure lurraldeari, beste jendeei berriz lotzen gaituen jarduera da (ihiztariak belaunaldi edo/eta maila sozial edo lanbide arrunt desberdinetakoak dira) baita jateko atseginari ere...

Horren harira, Herriko Onetsitako Ihizi Elkarteak basurdekizko ekoizkin batzuk saltzen ditu:


- Axoa: 12€ / 1,200 kg-ko kontserba
- Lukainkak: 11€ / airerik gabeko 1 kg-ko paketeen
- Zozizona: 5€ bana
- Patea: 3,5€ / 250 g-ko kontserba
-

Argibide gehiagorako (lukainkak / zozizonak erosteko, ihizi mota bat ezagutzeko, ihiztatzeko baimenari buruzko argibideak ukaiteko...), ez duda gure elkarteko bulego kide batekin harremanetan sartzea:

Guillaume LABARERE: 06.59.91.88.04

Peyo ETCHEGOYEN: 06.79.71.67.46

Jon ETCHART: 07.82.66.15.67



BIGA BAT guraso elkarte

Lehenik BIGA BAT elkarteko kide guziak eta haien partaideak eskertu nahi ditut aurten eramandako ekitaldi arrakastatsuengatik.

Gure elkartearen helburua da HEEko eskolako haurrek mota askotako jarduerak ezagutzeko bidea ukan dezaten.

Horretarako, ondoko ekitaldiak antolatzen ditugu:

- Mus txapelketa otsailean
- Bixkotx salmenta
- Oinezko ibilketa maiatzaren 1ean

Aurten, ekitaldi berri bat antolatu dugu 2022ko azaroaren 22an, jostailu eta bixkotx salmenta Izturitzeko eskolaren aitzinean. Lehen aldikotz antolatzen genuen hori eta arrakasta handia bildu dugu 700€ baino gehiago bildu baititugu jostailu eta bixkotx salmentaren bidez.

Mus txapelketari dagokionez, urtero bezala, parte hartzaile ugari hurbildu da, 76 muslari orotara, 1 200€ baino gehiago bildu dugu. Ekitaldi honentzat lagundu gaituzten merkatariak eta gurasoak eskertzen ditugu.

Maiatzaren 1eko ibilketa antolatzen ari gara aitzineko urteetan bezain egun ederra izanen delako itxaropenarekin gure ibiltariak gurekin izan daitezen. Urtero bezala, bildutako dirua haurren ateraldiak diruztatzeko erabiliko dugu.

Eguberriko besta ere antolatu dugu eskolaren parte hartzearekin eta Olentzeroren etorrerarekin. Haurrak loriatuak ziren.

Eskola bakoitzari diru laguntza bat ere ekartzen diogu Eguberriko opariak eta material pedagogikoa eros ditzan.

Itxura osoz, elkarteak jarduera horiek mantenduko ditu hurrengo urtean ere.

Urtero biltzen dugun arrakastak ekitaldi horiek mantentzera bultzatzen gaitu. Eskolaldi inguruko jardueretan haurrek erakusten duten poza ere asebetetze iturri handia da.

Guraso elkarteko lehendakaria

Marlène NOGUE

And.: apebigabat@gmail.com





ARBEROA IKASTOLA AINTZINA

Arberoa ikastola aintzina Izturitzen kokatzen den elkarte bat da, haurrak Arberoa ikastolan dituzten burasoek osatzen dute.

Urtero ekintza ezberdinak antolatzen ditu:

- Arberoa ikastolaren eguneroko gastu ezberdinen estaltzeko (irakasle laguntzaile diren 3 langileen hilabete sariak, ikas materiala, askariak ...),
- herriko bizian parte hartzeko.

2022an, COVIDak oztopatu aintzineko 2 urteetan baino ekitaldi gehiago antolatu ahal izan ditugu. Lehenik, xantza badugu buraso musikarien ukaitea *Arberoa Txarangan*. Ondorioz, antolatzaile ezberdinek deitu dituzte beren animazioen segurtatzeko (10 bat ateraldi 2022an) – Txarangaren irabaziak ikastolaren konduetan sartzen dira ekitaldietarik landa. Gero, 4 bertsolari ederki ari izan dira Izturitze Artetxean, martxoan, *Korrika Kulturala* kari. Apiril eta maiatzean, txokolate eta bixkotxen salmentak muntatu ditugu (legebiltzarreko bozen karietara eta Integrazio Batzordearen alde). Apirilean beti, Hazparneko Mendealak gerizatu dantza ikusgarriak, *Zarena Zarelako* horien buru, kausituak izan dira. Eta maiatzean, arrakasta bera ardietsi du Garaziko ikastolako burasoek eman *Saga Ikastola* antzerkiak, Armendaritzen. *Hiru Zango* kirol hitzordua Hazparneko Ezkia Ikastolarekin proposatu dugu ekainean. Eta gure urteko besta, *Arberoa Eguna*, ekainaren 25ean ospatu dugu. Uztailean, Donamartiri, Donoztiri, Izturitze eta Aiherrako herriko etxeek bultzatu udako ostiraler abiada ederki eman diegu gure txarangak *Mutxiko Gaua* alegeraturik. Udan zehar, ikastolako aparkalekuaren obrak bururatu ditugu. Azaroan, Belorritzek apailatu *Mendixken lasterkaldia* kari, janaria prestatu dugu. Abendu hastapenean, berriz antolatu ahal izan dugu Eguberriko merkatua Izturitzen. Denbora berean, « *Euskara gehiago eguneroko gauza ttipietan* » lemarekin, eguneroko bizian erabiltzen diren produktuak saldu ditugu interneten bidez.



Begira gure webgunea :
arberoaikastola.org

Arberoa ikastolaren proiektua komunikazio empatikoan, nortasunaren eta autonomiaren garapenean, eta ingurumenaren errespetuan (ondarkinen berexketa, askari biologikoak, baratzea...) oinarritzen da. 2008an ideki zen 5 haurrekin, 56 ikasle egin dute 2022/2023ko sartzeara.

Ikastolako ibilmoldeaz edota pedagogiaz xehetasun gehiago nahi luketenentzat, ez duda ikastolara zuzenki deituz : 05 59 29 76 23.

Edo herriko buraso hauetarik batekin harremanetan sartu :

- Aline Dupouy : 09 60 14 79 30.
- Sandrine Arotçaréna : 05 59 29 46 25.



ABARRATIA

2022an, 74 pilotari (52 esku huskan eta 22 pilota paletan) maiz trebatu dira Aiherra eta Izturitzeko trinket eta pilota plazetan, eta txapelketa desberdinetan parte hartu dute. Talde bat baino gehiago azken urratseraino iritsi dira, baita finaletaraino ere batzuk (ikus behereko taula).

2021eko Pierre Etcheverryk egin zuen bezala, 1. seriean segitzen duelarik, Mattin Durruty eta Xabi Hargindeguy pilotari gazteak Hazparneko BERRIA formakuntza zentroan hasi dira 2022ko irailean. Honek kluba harro egiten du.

Puntu azkarrei dagokienez, klubak "Arberoako ostiraletan" parte hartu du uztail eta agorrilean, baita korrikan ere.

2023. urtea 2022ko bizitasun berarekin hasi da, finalak iragan direlarik urtaril eta otsailean. Aurten urte garrantzitsua izanen da ARRABATIA klubarentzat, elkarteak 30 urte beteko baititu. Besta egun bat izanen da 2023ko irailaren 2an Aiherran.

DATA	LEKUA	TXAPELKETA	TALDEAK	EMAITZAK
2022/01/16	ARRANGOITZE	Frantziako esku huska txapelketaren finala Trinketean - gazteak	AZKAINDARRAK BAT (LARZABAL Iban - GONZALEZ Oihan) ABARRATIA 01 (DUHALDE Xalbat - ECHEVERTZ Mattin)	40 22
2022/01/29	AIHERRA	C.T.P.B. trinketeko esku huska finala Xito mailakoak - B TALDEA	URRUNARRAK 01 (Chipi Beñat - Calvo Rodriguez Urko) ABARRATIA 01 (Corret Paul - Supervielle Malmose Ekhi)	25 40
2022/07/17	ANHAUZE	C.T.P.B. esku huska finala Plaza librean - tarroak B taldea	SARAKO IZARRA 02 (Vella Barneix Mani - Marin Imaz Eneko) ABARRATIA 02 (Oihenart-Etxart Johane - Amestoy Mensosa)	30 12
2022/08/19	RIVIERE	Frantziako txapelketako finala Esku huska plaza librean - Artekoak	ABARRATIA (Garateix Antton - Oihenart-Etxart Iztebe) IRISARTARRAK (Berrogain Andde - Bidart Paolo)	11 30
2022/11/19	UZTARITZE	C.T.P.B. Pilota paleta finala Pilota paleta, neskak - gazteak B taldea	ABARRATIA 01 (Durruty Maiana - Etcheverry Emma) DENEK BAT 04 (Moustrats Zoé - Barberarena Ermine)	09/ 15/ 05 15/ 14/ 10
2022/12/11	IRISARRI	C.T.P.B trinketeko esku huska finala Artekoak - A taldea	DENEK BAT 01 (Lagourgue Raphaël - Lelandais Patxi) ABARRATIA 01 (DUHALDE Xalbat - MARTINON Allande)	40 34



Johane Oihenart-Etxart – Mendosa Amestoy
ANHAUZEn, 2022/07/17an



Iztebe Oihenart-Etxart eta Antton Garateix RIVIERE herrian,
2022/08/19an

